



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2006ko urtarrilaren 31a, asteartea.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena

HASIERA-ORDUA: 19:09 **AMAIERA-ORDUA:** 20:11

BERTARATUAK:

Alkatea

Ramon Etxeberria Aldaz

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, Noemi Ostolaza Arkauz, M. Jose San Sebastian Aranburu, Ainhoa Leunda San Sebastian, Martxiel Genoba Solaberrieta, Asier Yeregi Campos, M^a Elena Legarra Alfaro, Eugenio Cotado Iturain, eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

Bertaratu ez direnak

Aurora Azkue Mujika, gaixorik dagoelako.



Aztergai zerrenda

1. Irakurtzea eta onartzea, egoki bada, 2005eko abenduaren 27ko ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.
2. Onartzea, egoki bada, udal pertsonalaren nominetan % 3,7ko igoera aplikatzea, 2006ko urtarrilaren 1etik hasita.
3. Onartzea, egoki bada, udaleko zenbait funtzionariari jardueraren plus igoera aplikatzea.
4. Onartzea, egoki bada, udal bideen aire, lur eta lur-azpiaren aprobetxamendu berezia eta erabilera pribatua arautzen duen Ordenantza Fiskala.
5. Onartzea, egoki bada, Orioko Toki-Alai, Zaldia-Ondozabal-Aramendi Poligonoaren U.A.U.2-an dauden eta udalaren jabegoko diren 14, 15, 16 eta 17 zenbakidun garajeen salmentaren jendaurreko enkantea arautuko duen Baldintza Ekonomiko-administratiboen Plegua, eta Alkatetza-Presidentetzari ahalmen zabala ematea salerosketaren eskritura publikoak sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.
6. Hartzea eta jasotzea, egoki bada, Orioko Hirigune Historikoa Eraberritzeko Plan Bereziari dagozkion Udalbatzarraren akordioak.
7. Onartzea, egoki bada, hiri-bizitegi eremu finkatuetan lokalen erabilera etxebizitzara aldatzeko diren jardunak arautzen dituen Udal Ordenantzaren aldaketa.
8. Eskariak eta galderak.



Esan-eginak

1. IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, 2005EKO ABENDUAREN 27KO OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [9 baiezko boto]:

ONARTZEA, 2005eko abenduaren 27ko Ohiko Bilkuraren aktaren zirriborroa.

2 . ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL PERTSONALAREN NOMINETAN % 3,7KO IGOERA APLIKATZEA, 2006KO URTARRILAREN 1ETIK HASITA.

Arratsaldeko 19 eta hamar minutu direnean Eugenio Cotado Iturain zinegotzia gehitu da ospatzen ari garen Udalbatzarraren Bilkurara.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda eta Pertsonaleko Batzorde Informatzaileak 2006ko urtarrilaren 24an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:



ONARTZEA udal pertsonalaren nominetan % 3,7ko igoera aplikatzea, 2006ko urtarrilaren 1etik hasita.

3. ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALEKO ZENBAIT FUNTZIONARIORI JARDUERAREN PLUS IGOERA APLIKATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda eta Pertsonaleko Batzorde Informatzaileak 2006ko urtarrilaren 24an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

1. **ONARTZEA** M^a Josefa Oliden Genova Kontuhartzaitzako Administratiboari % 4ko jardueraren plusa aplikatzea, bere mailari dagozkion Lansari Orokorrean ezarrita dauzkan kopuruetatik, bilera, batzorde, joan-etorri eta abarretarako, lan ordutan zein lanorduz kanpo izan, 2006ko urtarrilaren 1etik hasita.

2. **ONARTZEA** Fulgencio Velez Cortés Udaltzainari % 4tik % 8ra doan jardueraren plusa igoera aplikatzea, bere mailari dagozkion Lansari Orokorrean ezarrita dauzkan kopuruetatik, Orioko Udaltzaingoaren Burutzan funtzioak betetzeko, titularrak kargua hutsik izan, absente edota gaixotasun kasuetan. Igoera hau udal legegintzaldi honetarako ezartzen da eta 2006ko urtarrilaren 1etik hasita aplikatuko da.

4. ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL BIDEEN AIRE, LUR ETA LUR-AZPIAREN APROBETXAMENDU BEREZIA ETA ERABILERA PRIBATUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda eta Pertsonaleko Batzorde Informatzaileak 2006ko urtarrilaren 24an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU**



ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA udal bideen aire, lur eta lur-azpiaren aprobetxamendu berezia eta erabilera pribatua arautzen duen Ordenantza Fiskala.

5. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO TOKI-ALAI, ZALDUA-ONDOZABAL-ARAMENDI POLIGONOAREN U.A.U.2-AN DAUDEN ETA UDALAREN JABEGOKO DIREN 14, 15, 16 ETA 17 ZENBAKIDUN GARAJEEN SALMENTAREN JENDAURREKO ENKANTEA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA, ETA ALKATETZA-PRESIDENTETZARI AHALMEN ZABALA EMATEA SALEROSKETAREN ESKRITURA PUBLIKOAK SINATZEKO, ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda eta Pertsonaleko Batzorde Informatzaileak 2006ko urtarrilaren 24an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

1. **ONARTZEA** Orioko Toki-alai, Zaldua-Ondozabal-Aramendi poligonoaren u.a.u.2-an dauden eta udalaren jabegoko diren 14, 15, 16 eta 17 zenbakidun garajeen salmentaren jendaurreko enkantea arautuko duen Baldintza Ekonomiko-administratiboen Plegua, eta Alkatetza-presidentetzari **AHALMEN ZABALA EMATEA** salerosketaren eskritura publikoak sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.

2. Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege-dekretuaren 78. artikuluan ezarritakoaren arabera, publiko egiten da Baldintza Pleguen ondorengo laburpena:

1. Erakunde esleipenduna.



- a) Erakundea: Orioko Udala
- b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontuhartzailletza.

2. Kontratuaren xedea:

- a) Xedearen deskribapena: Orioko Toki-alai, Zaldua-Ondozabal-Aramendi (Ibai Ondao Ibilbidea) Poligonoan dauden eta udal jabegokoak diren lau garaje plazen salmenta.
- b) Loteak: Lau.

3. Tramitazioa, Prozedura eta adjudikatzeko era:

- a) Tramitazioa: Ohikoa.
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Adjudikatzeko era: Enkantea.

4. Prezioa:

- 14. Garajea: **16.800 EURO.**
- 15. Garajea: **18.600 EURO.**
- 16. Garajea: **16.200 EURO.**
- 17. Garajea: **18.000 EURO.**

5. Bermeak:

- a) Behin behinekoa: 324 euro.

6. Iragarkien gastuak:

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

7. Dokumentazio teknikoa lortzea:

Espedientearen dokumentazio teknikoa Orioko Udaleko Bulego Teknikoan aztertu ahal izango da.



8. Proposamenak aurkeztea:

- a) Epea: Hogeita sei egun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza Pleguetan zehaztutakoa.
- c) Tokia: Udaleko Idazkaritza-kontuhartzaitzan.
- d) Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 8:30tik 14:30ra.

9. Proposamenak irekitzea:

- a) Tokia: Orioko Udaletxea.
- b) Noiz: Proposamenak aurkezteko epearen azken egunetik kontatzen hasita hurrengo lanegunean, larunbata izan ezik; larunbata bada, hurrengo lanegunera atzeratuko da.
- c) Ordua: 12:00etan.

6. HARTZEA ETA JASOTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRIGUNE HISTORIKOA ERABERRITZEKO PLAN BEREZIARI DAGOZKION UDALBATZARRAREN AKORDIOAK.

Izanik, 2005eko irailaren 30ean eta abenduaren 5ean Orioko Bariko Nikolas Deunaren Elizarekin hitzarmen sendoak sinatu direla, “Orioko San Nikolas Kaleko 8. zenbakiko eraikinaren Birgaitze” lanei dagozkien finantzazio baldintzak eta jabeakidetzaren arauak ezartzen dituztenak, eraikin horretan behe oina eta bigarren solairuaren artean zerbitzu publikoa izango duen igogailu bat jartzea aurreikusten da, horrela egun Birgaitze Plan Berezia ezarrita dagoen Aritzaga Kalea eta oinezkoen Ibilbideen lehen mailaren artean duden irisgarritasun arazoak saihestuz.



Kontuan hartuz, ondorioz, Aritzaga Kaleko 7. zenbakiko eraikinarentzat Birgaitze Plan Berezian ezarritako hirigintzako xedeak San Nikolas Kaleko 8. zenbakiko eraikinean jarri den igogailuarekin bete direla, une honetan Aritzaga Kaleko 7. zenbakiko eraikinaren hirigintzako fitxa aldatuko da, ondoren eransten den fitxan ezarritako hirigintzako erabakien arabera.

Kontuan hartuz, Aritzaga Kaleko 7. zenbakiko eraikinaren hirigintza fitxa berriak ez dakarrela, inolaz ere, Orioko Alde Zaharraren Birgaitze Plan Berezian ezarritako hirigintza erabakietan aldaketa handirik, ez da informazio publikoko tramite berririk irekiko.

Izanik, otsailaren 27ko 3/1998 Ingurumena Babesteko Lege Orokorrean ezarritako agindua betez, uztailaren 22ko 183/2003 Erkidegoko dekretuak erregelamenduz garatua, Planaren edukia Ingurumen-inpaktuaren Ebaluazio Bateratu bat ezartzeko beharra arautzen duena, hau hirigintza planeamendua onartzeko prozeduran sartuta dagoen nahitaezko tramite bat izanik eta betetzen ez bada, ondorioz, behin betiko onarpena erabakitzea galarazten duena; eta, 2005eko maiatzaren 13ko idatzian eta Gipuzkoako Foru Aldundian 2005eko azaroaren 15ean sarrera emanik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde-antolalmenduko Zuzendari Orokorrak horrelaxe erabakita, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Orokorriari eskatu zion Orioko Alde Zaharreko Birgaitze Plan Bereziari dagokion Ingurumen-inpaktuaren aurre txostena luzatzea, baina egundaino aipatu Ingurumen Zuzendaritza Orokorrak ez du aurre txostena luzatu, egiteko honi dagozkion ezarritako bi hilabeteak aspaldi iragan badira ere.

Kontuan hartuz, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde-antolamendu eta Ingurumen Sailaren uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren 9. artikularen 1 eta 2 apartatuetan ezarritakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duena, eskumen duen organoak bi hilabete epean ingurumen-inpaktuaren aurre txostena luzatuko du, eta aipatu epe horretan aurre txostenaren ebaluaziorik egingo ez balitz, prozedurarekin jarraitu ahal izango da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2006ko urtarrilaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, HONAKO HAU



ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

LEHENENGO.- ONARTZEA Orioko Alde Zaharraren Birgaitze Plan Bereziko Aritzaga Kaleko 7. zenbakiko eraikinaren hirigintza fitxaren aldaketa, Udalbatzarraren akordio honetako esposizio-atalean emandako terminoen arabera.

BIGARREN.- ESKATZEA Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde-antolalmenduko Zuzendaritza Orokorrari Eusko Jaurlaritzaren Lurralde-antolamendu eta Ingurumen Sailaren uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan ezarritako prozedura jarraitzeko, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duena, eta ondorioz, aldez aurreko nahitaezko tramiteak eginda, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluari Orioko Alde Zaharraren Birgaitze Plan Berezia behin betiko onartzea.

7 . ONARTZEA, EGOKI BADA, HIRI-BIZITEGI EREMU FINKATUETAN LOKALEN ERABILERA ETXEBIZITZARA ALDATZEKO DIREN JARDUNAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2006ko urtarrilaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

1.- HASIERAKO ONARPENA EMATEA hiri-bizitegi eremu finkatuetan lokalen erabilera etxebizitzara aldatzeko diren jardunak arautzen dituen Udal Ordenantzaren aldaketari.

2.- Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritako betez, informazio publikoan jartzen da interesdun guztiek beharrezko irizten dioten erreklamazio eta iradokizunak



aurkeztu ahal ditzaten 30 laneguneko epean Udal honen Udalbatzarraren aurrean 30 laneguneko epean. Udal Ordenantzaren aipatu Aldaketa interesdunen esku dago Udaletxeko Idazkaritzan lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 8:30tik 14:30ra, eta zehazten da aipatu epe horretan akordio horri ez balitzaio erreklamazio edota iradokizunik aurkeztuko, Udal Ordenantzaren Aldaketa behin betikoz onartutzat emango da.

8. ESKARIAK ETA GALDERAK.

Noemi Ostolaza alkateordeak hartu du hitza adierazteko Orioko Hondartza inguruan Balea Arrantzaren eta Arraunaren Interpretazio Zentro bat egiteko azterketaren egitasmoa idazteko lizitazioa Udal honetako Alkatetza-Lehendakariak Dekretuz onartu duela.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, eta publikoan zeuden zenbaitzuk hitza hartu ondoren, Alkate-Lehendakariak bilkurari amaiera emateko agintzen du, eta erabakitako guztia jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATEA

IDAZKARIA